

# BREXIT

ENPRESEK JAKIN BEHAR  
DUTENA HARREMAN  
KOMERTZIALAK IZATEKO  
AURRERANTZEAN  
ERRESUMA BATUAREKIN

Aholkuak sektoreka  
eta Aholku orokorrak

Gauza asko gertatu dira Erresuma Batuak 2016ko ekaineko erreferendumean erabaki zuenetik Europar Batasunetik irtetea, eta gertakari horiek guztiek gero eta ziurgabetasun handiagoa sortu dute bozketa bidez onartutako erabaki horren inguruan. Bloke erkidetik ateratzeak eragin handia izango du eragile askorengan, esaterako enpresetan, eta bereziki hornikuntza-katearen begiren bat Erresuma Batuan duten konpainietan.

Ziurgabetasun giro horretan, Europar Batasuneko enpresek aurrea hartu behar dute, oraindik egin ez badute, eta prest egon behar dira akordiorik gabeko haustura-eszenatoki baterako. Eszenatoki horretan Erresuma Batua herrialde ez-kide bezala tratatuko da martxoaren 29tik aurrera, eta horrek esan nahi du ez dela egongo trantsizio epe bat, zeinetan aplikatuko diren orain indarrean dauden arauak, berriak zehaztu arte; aitzitik, akordiorik gabeko haustura gertatzen bada, hirugarren herrialde bati aplikatzen zaizkion arau berak aplikatuko zaizkio Erresuma Batuari egun horretatik bertatik.

Merkataritza-harremanak gauzatzeko Munduko Merkataritza Erakundearen arauak beteko direnez, Europar Batasuneko enpresak Munduko Merkataritza Erakunde (WTO) kide diren beste herrialdeetako enpresen parekoak izango dira Erresuma Batuko aduana-zergetan, muga-kontroletan edo zerbitzu arloko lankidetzetan, eta ez dute izango bestelako abantailarik.

## **AHOLKUAK SEKTOREKA**

### **Jarduera-sektore bakoitzarentzako ondorioak**

---

Zenbait sektorek gogorrago eta beste zenbait kontutan ere jasango dute BREXITaren eragina.

#### **Nekazaritza eta elikadura sektorea**

Europar Batasuneko legerian aurreikusi gabeko aduana-tramiteek eta aduanaz kanpoko kontrolek (kanpoko osasuna, landare osasuna, kalitate komertziala), eta Erresuma Batuak ezar ditzakeen beste kontrol batzuek luzatu egingo dute merkatu-gaiak jatorritik jomugara eramateko beharko den denbora. Nola sektore honetako salgaiak iragankorrak diren, luzamendu horrek berekin ekar dezake produktu horiek kontserbatzeko eta garraiatzeko modua aldatu behar izatea.

#### **Farmazia sektorea**

Aurreko kasuan bezala, baina inpaktu handiagoarekin zenbait medikamentuk oso bitzta erabilgarri laburra dutelako, produktuak aduanatik igartzeko denbora gehiago behar izatea eta horniketan gerta daitekeen eskasia dira sektore honen arazo nagusiak.

Bestalde, ez da gauza segurua Erresuma Batuak Europako Medikamenduaren Agentziako kide izaten jarraituko duela behin Europar Batasunetik atera eta gero. Farmazia enpresek kontuan izan behar dute medikamenduak merkaturatu aurreko azken probak egiten dituzten laborategietako asko Erresuma Batukoak direla.

### Automozio sektorea

Erresuma Batua ez da izango gehiago agintaritza eskudun bat EB motako onarpenak emateko. Erresuma Batutik Europar Batasunera esportatzen diren ibilgailuek derrigor izan beharko dute Europako agintaritza batek emandako ziurtagiria.

Automozio sektorean eragin handia izango dute aduana-zergeak eta hornikuntza prozesuko beste zerga eta gastu batzuek, zeren osagai-fabrikatzaileek OEBek finkatutako gehienezko kostu-mugekin lan egiten dute normalean. Era berean, birplanteatu beharko da *just in time* motako produkzioa, moteldu egingo delako merkatu-gaien zirkulazioa.

### Energia sektorea

Oso zorrotz araututako sektorea denez, legeria-ziurtasunik ezak eragin handia izango du sektore honetan. Erresuma Batuko operatzaileak Energia Merkatuaren Integritateari eta Gardentasunari buruzko Araudian (REMIT) erregistratu beharko dira Europar Batasunarekin dauzkaten mugaz gaindiko jarduerak eten ez daitezen. Pentsatzekoa da argindar merkatuan ari direnek Erresuma Batuak eta Europar Batasunak emandako ziurtagiriak beharko dituztela euren eguneroko jarduerarekin jarraitzeko.

### Garraio sektorea

Merkatu-gaientzat ezarriko diren kontrolek ez bakarrik motelaziko dute garraioaren abiadura, baizik eta eragina izango dute aireko trafikoa, pertsona zein merkatu-gaietan, desagertu egingo delako Erresuma Batuaren eta Europar Batasunaren aireko espazioen arteko zirkulazio librea. Europako Batzordeak araudi-proposamen bat onartu du 9 hilabetez luzatzeko abiazio arloko zenbait segurtasun-lizentziaren balioa, eta beste araudi-proposamen bat, posible egiteko Erresuma Batuko operatzaileei produktuak garraiatzea Europar Batasunera beste 9 hilabetez. Neurri horiek hartuko badira, Erresuma Batuak ere antzekoak hartu beharko ditu Europar Batasuneko operatzaileentzat.

Trenbideko garraioari dagokionez, aurreikusten da tren operatzaileek lizentzia, ziurtagiri eta baimen berriak eskatu beharko dituztela Europar Batasunean operatzen jarraitzeko. Halaber, Erresuma Batuko agintaritzak arautzaileak emandako jarduera-lizentziak dituzten Europar Batasuneko operatzaileek berritu egin beharko dituzte lizentzia horiek Europar Batasuneko agintari baten aurrean.

Errepideko garraioari dagokionez, airekoan bezala Europako Batzordeak proposamen bat onartu du, zeinaren bidez Erresuma Batuko lizentzia duten operatzaileei baimena emango zaien bederatzi hilabete gehiagoz jarraitzeko garraiatzen merkatu-gaiak Europar Batasuneko errepideetan. Neurri horiek hartuko badira, Erresuma Batuak ere antzekoak hartu beharko ditu Europar Batasuneko garraiolariarentzat.

## Finantza sektorea

Erresuma Batuko finantza operatzaileek ez dute izango eskubiderik euren zerbitzuak Europar Batasunean eskaintzeko finantza pasaportearen baldintzetan. Europako Batzordeak ondorioztatu du neurri gutxi behar direla Europar Batasuneko herrialdeen finantza-egonkortasuna bermatzeko. Zentzu horretan, adostu da ez dela etenik gertatuko Erresuma Batuko operatzaileek eskaintzen dituzten gordailuzaintza zerbitzuetan, eta beste neurri batzuk hartu dira zerbitzu horietatik eratorritako instrumentuen operatibari buruz. Neurri horiek hartuko badira, Erresuma Batuak ere antzekoak hartu beharko ditu.

# AHOLKU OROKORRAK

## Enpresa guztientzako ondorioak eta gomendioak.

### Ondorioak:

#### Aduana-zergak

Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzen denean merkatu erkidetik kanpo geratuko da. Zer esan nahi du horrek euskal enpresentzat? Praktikan, Erresuma Batuak aduana-zergak aplikatuko dizkiela hango produktuak inportatzen dituztenean. Horrek produktuen kostua handituko du eta konparatiboki lehiakortasuna kenduko die euskal enpresei, beraz, arriskua egon liteke beste hornitzaile batzuek beren lekua har dezaten. Era berean, aduana-zergak aplikatuko dira Erresuma Batutik datozen produktuak inportatzeko, eta horrek hornikuntza-prozesuaren kostuak handituko ditu.

## Aduanetako kontrolak

Merkatu-gaiak ezingo dute zirkulatu libreki, baizik eta alderdi biek ezarritako kontrolak igarota, eta kontrol horiek ez dute zertan izan berdinak. Horren ondorioz handitu egin daitezke aduanako formaltasunak betetzeko kostuak, eta atzerapenak sor daitezke merkatu-gaien ikuskapenengatik; ondorioz, garestitu egingo dira garraio tarifak eta arrisku gehiago egongo da adostutako produkzio- eta entrega-epeak ez betetzeko.

## Jatorriko arauak

Erresuma Batutik datozen produktuak ez dira izango gehiago “EBn sortuak” hirugarren herrialde batekiko lehentasunezko merkataritza-araubide baten markoan. Hortaz, euskal enpresa batek Erresuma Batutik sargaiak ekartzen baditu bere produkzioan erabiltzeko eta ondoren hirugarren herrialde bati saltzeko, gerta liteke enpresa horren amaierako produktuak ez edukitzea EB jatorriko behar adina osagai.

## Fiskalitatea

Erresuma Batutik Europar Batasunera merkatu-gaiak inportatzen dituzten enpresek, eta alderantziz egiten dutenek, BEZ zerga ordaindu beharko dute, eta merkatu-gai horiek garestitu egingo dira konparazioan. Horrez gain, merkatu-gai batzuek bestelako zerga bereziak izan ditzakete.

## Arau teknikoak

Produktu bat merkaturatzeko eskatzen diren kalitate estandarrak eta gutxieneko baldintzak ez dira izango orain artekoak. Nola Erresuma Batuak gaitasuna izango duen arau propioak finkatzeko, posible izango du aldaketak edo baldintza gehigarriak aplikatzea eta, ondorioz, gerta liteke ez egotea gehiago aukerarik Erresuma Batuan saltzeko zenbait produktu orain arte arazorik gabe saldu izan direnak, edo horien salmentari mugak jartzea edo erabat debekatzea. Kontrako zentzuan, inportatzailea Europar Batasuneko kidea denean, antzeko mugak egon daitezke.

## Inportazio/esportazio lizentzia.

Europar Batasunak inportazio/esportazio lizentzia bat eskatzen du merkatu-gai jakin batzuk (hondakinak, produktu kimiko arriskutsuak, merkurioa, kultur ondasunak, diamanteak, suzko armak, e.a.) igortzeko hirugarren herrialde batetik Europar Batasunera eta alderantziz. Lizentzia horiek herrialde kideetako agintari nazionalak ematen dituzte. Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzen denean, Erresuma Batuak emandako lizentziek ez dute balioko bidalketak egiteko hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera, eta alderantziz.

## Kanbio arriskua

Bi alderdien arteko etorkizuneko negoziazio edo akordio komertzialen iragarpenek eta antzeko faktoreek eragina izango dute liburen eta euroaren arteko erlazioan. Kanbioaren fluktuazioak eragina izango du irteeraren ondoren likidatu beharreko obligazio eta eskubideetan.

## Langileen joan-etorriak

Duela gutxi argitaratu da BREXITaren ostean Erresuma Batura migratzeko baldintzak jasotzen dituen Liburu Zuria. Hor aurreikusten da 12 hilabeteko lan-baimena ematea "arrisku baxuko herrialdeetatik" datozen kualifikazio baxuko langileei, eta 5 urterainoko lan-baimen berriztagarria urtean 30.000£ edo gehiago irabazten duten langile kualifikatuei.

## Gomendigoak:

1. Kontingentzia-plan bat egin behar da, bertan jasotzeko egoera honek eragin ditzakeen arrisku guztiak eta arrisku horiek arintzeko edo gutxitzeko hartu behar diren neurriak..
2. **Hornikuntza-katea sistematikoki berrikusi behar da, negoziaren jarraipenerako kritikoak diren hornitzaileak, bezeroak eta gainerako eragileak** identifikatzeko. Horretarako, hausnartu behar da zer eragin izango duen akordio gabeko haustura batek eragile horiengan, eta harreman komertzialari normaltasunez eusteko duten gaitasunean, **gogoan izanik beti ere enpresa batean eragina izan dezaketela bere jarduerarekin zerikusirik ez duten makina bat faktorek**. Ahal den neurrian, gomendatzen da horrelako eragileak zerbait dibertsifikatzea, inorekiko gehiegizko menpekotasunik ez izateko.  
**Berrikusi behar dira eragile horiekin sinatutako kontratuak**, batez ere 2019ko martxoaren 29a baino geroago iraungitzen direnak; aztertu behar da, batetik, zein konpromiso hartu zituen enpresak bere bezeroekin gaurkoa baino askoz egonkorragoa zen eszenatoki batean eta,

bestetik, zenbaterainoko gaitasuna daukan benetan konpromiso horiei aurre egiteko. Gomendagarria da kontratuak berriro negoziatzea, baldin ezartzen badute enpresak zigorrak ordaindu beharko dituela bere esku ez dauden atzerapenengatik. Ez dagoenean berriro negoziatzerik, aseguru enpresa batekin estali liteke arrisku hori. Bestalde, hornitzaileekin sinatutako kontratuak berrikustean zehaztuko da zenbat ordaindu behar den ez-betetzeak konpentsatzeko.

Sinatuko diren kontratu berriei dagokienez, gomendagarria da kontratuen iraungipen-data ez izatea 2019ko martxoaren 29tik aurrerakoa, marko legegile egonkorrago batean formalizatzeko etorkizuneko kontratuak. Ezinbestekoa bada iraungipen-datak epe hori gainditzea, **kontuan hartu behar da kontratua betetzeko garaian indarrean egongo den eszenatokia eta oraingoa oso desberdinak izango direla**. Halaber, kontu handirekin aztertu beharko dira operazioetan finkatutako baldintzak, argi utziz jabetza transmititzeko unea eta arriskua.

3. **Ohikoak baino epe luzeagoak aurreikusi** produkzioarako behar diren sargaientzat, eta baita ere entrega-datentzat, truke komertzialen abiadura moteldu egingo baita arestian esan diren faktoreen ondorioz. Zehaztu beharko da komeni den ala ez **aldez aurretik hornitzea edo toki gehiago izatea stock biltegietan**.
4. Ibilbide alternatiboak identifikatu behar dira Erresuma Batuaren eta Europar Batasunaren arteko itsas-loturetarako. Gomendatzen da harremanetan jartzea operatzaile logistikoarekin ikusteko komeni ote den barne-biltegi bat erabiltzea, edo banaketa-zentro desberdinak, edo ohikoez bestelako sarrera/irteera-portuatarako garraio ibilbideak.
5. **Aztertu behar da beharrezkoa ote den inportazio/esportazio lizentziak edo baimen bereziak eskuratzea** eguneroko jarduerarekin jarraitzeko. Zentzu horretan, komenigarria da 2008tik indarrean dagoen Operatzaile Ekonomiko Baimenduaren (OEB) estatusa lortzea. Edozein tamainatako negozioek eskuratu dezakete estatus hori, baldin eta nazioarteko hornikuntza-katean inplikaturik badaude eta Europar Batasuneko aduanekin zerikusia duten jarduerak garatzen badituzte. Estatus hori eskuratzeko dutenek askoz errazago gainditu ahal izango dituzte BREXIT-aren ondoren sortuko diren aduana- prozedurak: lehentasunezko tratua jasoko dute ikuskatuak izateko aukeratuak badira, aldez aurretik abisatuak zaie aduana-kontrolen bat igaro behar badute, dokumentu-kontrol eta kontrol fisiko gutxiago egingo zaizkie eta erregimen berezietarako baimenak lortuko dituzte.
6. **Aztertu behar da zenbateko inpaktua izango duten hornikuntza kostuetan aduana-zergek, bestelako zergek, kontrolek, garraio-tarifek eta merkatu-gaien mugimenduetako atzerapenek**. Komenigarria da kontsultatzea WTOren arauetan zein aduana-zerga aplikatzen diren eta harremanetan jartzea hornitzaile logistiko batekin atzerapenek prezioetan eragingo dituzten aldaketek hitz egiteko.
7. Aztertu behar da kanbio-aseguruak kontratatu behar diren ala ez, operazio handienetan ez jasateko nahi ez den ondorioz euroaren eta libreraren arteko kanbio-tasaren fluktuazio ziurgabearen ondorioz.